

2019-12-17an EGINDAKO EZ OHIKOA  
UDALBATZA.

SESIÓN EXTRAORDINARIA DEL  
PLENO DE LA CORPORACIÓN. Día  
17-12-2019.

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Jose Ramon Zubizarreta Alegria

Zinegotziak

Maite Uribe Beristain  
Maria Purificación Regidor Varela  
Antonio Regaño Sájeras  
Josu Ezkurdia Santamaría  
Ana Belén de Castro Ramos  
Eluska Irazu Henández  
Nestor Arana Arexolaleiba  
Dorleta Sologaistoa Aguiriano  
Iñaki Kerejeta Gorostiza

Idazkaria

EDURNE ITURBE LASKURAIN

Eskoriatzan, 2019ko abenduaren 17ko arratsaldeko 18:00etan, Osoko Bilkura aretoan, Jose Ramon Zubizarreta Alegria alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatza, ez ohiko bilkuran, gai zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez da etorri Ander Errarte del Pozo.

En Eskoriatza, siendo las 18:00 horas del día 17 de diciembre de 2019, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión extraordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente Jose Ramon Zubizarreta Alegria, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asiste Ander Errarte del Pozo.

## **1.- GAI ZERRENDAN GAI BAT SARTZEA BERRESTEA. APOTZAGAKO AUZO ALKATE BERRIAK BERE KARGUA HARTZEA.**

Aho batez erabaki da gaia gai zerrendan sartzea.

2019ko irailaren 7ko Alkate erabakiz Apotzaga Elizatean Alkatearen ordezkari izateko (auzo alkate) Jesus San Vicente Bengoa jauna izendatu zen.

Alkatearen ordezkari izendatutako horrek bere karguari uko egin zion 2019ko abenduaren 5eko idazki bidez, eta 2019ko abenduaren 9ko Alkate erabakiz, Jose Ramon Ocaranza Otaduy izendatu zen bere ordezkari gaurako.

Jose Ramon Ocaranza Otaduy jauna bilkura honetan aurkitzen da, eta berariaz onartzen du Apotzagako auzo alkate kargua.

## **2.- ALKATETZAREN ADIERAZPENAK.**

2019ko abenduaren 11ra arte Alkateak hartutako erabakien berri eman eta horien laburpenen kopia banatu da.

Ondoren, berariaz jakinarazten dira 25. eta 26. kreditu aldaketa espedienteak onartzeko hartutako erabakiak.

## **3.- HERRITARREI ARRETA EGITEKO ZERBITZU INTEGRALA EZARTZEKO PROIEKTUARI BABESA EMATEA ETA KOORDINAZIO TALDE BAT SORTZEA.**

Eskoriatzako Udalaren eta herritarren arteko harremana hobetzeko bidean aurrerapauso bat emateko beharra ikusi da, hain zuzen ere, herritarrei arreta egiteko zerbitzu integral bat - kudeaketa eta informazio funtzio bikoitzarekin- martxan jartzea herritarren eskariei arinago eta azkarrago erantzuteko, eskariak harreman pertsonal eta indibidualizatu baten bidez erantzun ahal izateko eta informazio eta zerbitzu zuzenagoa eta eraginkorragoa emateko.

Uste da zerbitzu hori talde-lan dinamika bidez ezarri beharko litzatekeela, erabakiak hartzerakoan ados jartzen lagunduko lukeelako; eta horregatik, Udal honetako langileek aurkeztutako proposamenaren arabera, eta Pertsonal eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako diktamenaren arabera, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Zerbitzu publikoko erakundea denez, Udal honetako Udalbatzarrak Herritarrei Arreta egiteko Zerbitzu Integral bat ezartzeko proiektuaren alde egiteko eta bultzatzeko konpromisoa hartzen du, zerbitzu hori udal gertukoa, eraginkorra eta kalitatezkoa lortzeko tresna garrantzitsuena izan dadin.

**Bigarrena.-** Zerbitzu hori ezartzeko prozesua bultzatzeko eta garatzeko proiektuaren KOORDINAZIO TALDEA izendatzea, honako hauek osatutakoa:

- Alkate-Udalburuak.
- Ondorengo langileek: idazkaria, informatikaria, kultur teknikaria, euskara teknikaria, gizarte langilea, aparejadorea, udal obretako ingeniari teknikoa eta hiru administrari.

KOORDINAZIO TALDE horren berezko funtziotzat honakoak finkatzea:

- Helburuak zehaztea.
- Bere funtzionamendua antolatzea eta funtzioa banatzea kideen artean.
- Zerbitzua ezartzeko ekintzen kronograma, garatu beharreko lan guztiak, horien iraupena eta arduradunak planifikatzea, egitea, adostea eta proposatzea.

**Hirugarrena.-** Talde koordinatzailearen bilereetan parte hartzera gonbidatuko zaie Pertsonal eta Ogasun batzorde informatzailean gainerako udal-taldeen ordezkari gisa parte hartzen duten kideei. Era berean, batzorde horretan talde koordinatzaileak planteatzen dituen gaiei buruzko informazioa emango da, horien jarraipena egingo da eta bidezko proposamenak onartuko dira.

#### **4.- 2020ko AURREKONTUA ONARTZEA.**

EH BILDUK zuzenketa partziala aurkeztu dioenez Pertsonal eta Ogasun batzorde informatzailearen diktamenari, Alkateak hitza eman die talde horretako zinegotziei, nahi izanez gero, zuzenketa horiek aurkezteko.

**Nestor Aranak hartu du hitza,** eta azaldu ondoren bere taldeak zuzenketa horiek aurkeztu dituela ez duelako idatziz inolako erantzunik jaso aurrekontu zirriborroari aurkeztutako proposamenaren inguruan, zuzenketen laburpena egin du. Ondoren transkribatzen da hitzez hitz zuzenketen testu osoa:

##### **1. ZUZENKETA PARTZIALA: *Gazteek bizi duten egoerari aurre egiteko neurriak***

###### **AZALPENA:**

*Gazteek bizi duten egoerari aurre egiteko neurriak hartzen hasi beharko dugu, batez ere, aukera gehiago eskaintzeko, gazteen emantzipazioari laguntzeko eta duintasunez etorkizun hobean bizitzeko; horretarako hainbat erabaki hartu eta ekintza egin beharko dira: prekarietate laborala, etxebizitzaren merkatura iristeko zailtasunak, emantzipazioa ... Horretarako gastuen probisio bat irekitzea proposatzen dugu, neurriak eta programa bat hurrengo lau urtetan garatzen hasteko eta Eusko Jaurlaritzak duen Gazte Planaren osagarri izateko.*

*Gauzak horrela, aurrezki proposamen bezala zinegotzientzako ezarri berri diren norbanakoen dietak kentzea proposatzen dugu. Gastu hori ez dago justifikatua, Eskoriatzako moduko herri baten. Udal taldeak eta bere zinegotziak bere jarduerarako behar ditugun baliabide ekonomiko nahikoak jada udal talde moduan jasotzen ditugulako.*

*Udalbatza eta komisioak ez dira hainbeste izaten eta beraz ez dira ordaindutakoak izan behar, udalbatza honetan 11 zinegotzi gaude, baliabide humano nahiko daude arduraz guztiei erantzuteko, beraz arduren kontzentrazioetik banaketa batera heldu beharko genuke.*

*Dieta sistemak alde ezkor bat dauka ere, dietak helburu bihurtzea eta ez jarduera eraginkorra, hau da, bilkurak egitea egiteagatik, eta dauden bilkurak ez eraginkorrak bihurtzea.*

**AKORDIO PROPOSAMENA:**

**AURREZKI PROPOSAMENA**

<b>0200.231.912.00.00</b>	<b>Dietak</b>	<b>LOKOMOZIO</b>	<b>2,000.00</b>
	<b>GASTUAK:ZINEGOTZIAK</b>		<b>€</b>

**GASTU PROPOSAMENA**

<b>Gazteen aldeko neurriak, emantzipazioa helburu</b>	<b>2,000.00 €</b>
---	-------------------

Lehen zuzenketa horri dagokionez, gaineratu du egunotan komunikabideetan albiste dela gazteek emantzipatzeko duten zailtasuna, eta zailtasun hori, beste arrazoi batzuen artean, jasotzen dituzten soldata hain baxuek eta alokairuen garestitasunak eragin dutela. Era berean, argitu du laguntza-poltsa hori finantzatzeko, zinegotzien dietetarako kredituaren zati batez gain, etxebizitza hutsei OHZn errekarua ezartzetik erator litezkeen diru-sarrerara handiagoak planteatzen dituztela.

**2. ZUZENKETA PARTZIALA: Genero-berdintasuna bultzatzeko neurriak**

**AZALPENA:**

**Genero-berdintasunari eta emakumeen borrokari lotuta dago, gizonetik baldintza-berdintasuna lortzeko. Horretarako, "Emakumeen aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Egunaren" harira, Eskoriatzako Udalak hartu eta gauzatu beharreko hainbat jarduera eta konpromiso proposatu ditu. Hasteko, Eskoriatzan bizi den egoeraren azterketa egingo dugu, gure abiapuntua ezagutzeko eta gure inguruko errealitatearekin bat datozen politikak eta prozedurak proposatzeko, gizarte-eragileen artean adostasunez bide horretan urratsak egiteko.**

*Honetarako aurrezki proposamena bezala zinegotzientzako ezarri berri diren norbanakoen dietak kentzea proposatzen dugu. Gastu hori ez dago justifikatua Eskoriatza moduko herri batean. Udal taldeak eta beren zinegotziak jarduerarako behar ditugun baliabide ekonomiko nahikoak, jada, udal talde moduan jasotzen ditugulako.*

*Udalbatza eta komisioak ez dira hainbeste izaten eta beraz ez dira ordaindutakoak izan behar, udalbatza honetan 11 zinegotzi gaude, baliabide humano nahiko daude ardura guztiei erantzuteko, beraz arduren kontzentrazioetik banaketa batera heldu beharko genuke.*

*Dieta sistemak alde negatibo bat izan dezake; hau da, dieta horiek jasotzea helburu bihurtzea eta, hortaz, bilkurek eraginkortasuna galdu, azken finean, bilkurak egitea egiteagatik dakar.*

**AKORDIO PROPOSAMENA:**

**AURREZKI PROPOSAMENA**

<b>0200.231.912.00.01</b>	<b>Dietak LOKOMOZIO GASTUAK:ZINEGOTZIAK</b>	<b>3,500.00 €</b>
---------------------------	---	-----------------------

**GASTU PROPOSAMENA**

<b>Emakumeen ahalduntze eta genero berdintasuna</b>	<b>3,500.00 €</b>
---	-------------------

Bigarren zuzenketa horri dagokionez, aurrera pauso erreal bat emateko beharra azpimarratzen du, eta ekimen praktiko eta zehatz gisa planteatzen du mugikortasunaren inguruan antolatzen diren partaidetza-prozesuetan emakumeek parte hartzea; izan ere, dioenez, estatistikoki egiaztatuta dago emakumeak direla garraio publikoa gehien erabiltzen dutenak.

**3. ZUZENKETA PARTZIALA: Gazte Lekua handitu eta berritu**

**AZALPENA:**

*Ez ditugu ezagutzen Frontoirako udal gobernuak egin dituen planak. Gure ustez, horretarako prozesu parte hartzaile bat martxan jarri behar da, bai eragileekin bai herritarrekin, ekarpenak eta ideiak jasotzeaz gain, kontsulta-sistema baten bidez azken erabakiak hartzeko.*

*Kontutan hartu behar da: gazte, nerabe eta gurasoen artean dagoen eskakizun bat. Gazteleku txokoarentzat beharrezko gune gehigarriak eta hobekuntzak aurreikustea; espazioak txiki geratu baitira dituzten erabiltzaile kopuruarentzat.*

*Frontoirako egindako proposamen barnean, Gazte Txokoaren beharra kontutan edukitzeko, partida horretan probisio bat sortzea eskatzen dugu.*

**AKORDIO PROPOSAMENA:**

<b>0100.622.342.10.01</b>	<b>PILOTALEKUA BERRITU.1 FASEA</b>	<b>50,000.00 €</b>
---------------------------	------------------------------------	--------------------

**GASTU PROPOSAMENA**

	<b>Gazte Leku handitu eta berritu</b>	<b>50,000.00 €</b>
--	---------------------------------------	--------------------

**4. ZUZENKETA PARTZIALA: Santa Anako parkingna handitzea**

**AZALPENA:**

*Santa Anako parkingaren bilakaera gatazkatsua izan da, azken denboraldian, arazoak ugaltzen joan dira eta behin behinekoa izan behar litzatekeen arazoa behin betikoa izateko bidean dago. Hori gertatu ez dadin, Udaletxeak arazoa konpontzeko bidea hartu behar du, elkarrizketaren bidez guztion onura bilatuz, jarrera eraikitzaile eta akordio bilatzaile izanik.*

*Hau da, lortzera bideratu, gaur egun itxita dagoen parking zatia berriz irekitzea alokairu baten bidez. Pisuzko arrazoiak honen alde daude:*

*Erdialdean parking plaza nahikorik ez dagoela egunero ikusten dugu. Santa Anako parkinga erdialdean paper garrantzitsua jokatu behar du sinergiak sortzeko: herriko bizitza sustatzeko erdialdean egiten diren jarduerak eta dauden zerbitzuak kontutan hartuz (antzokia, liburutegia, eskolak, erresidentzia, plaza, frontoia, gaztelekua, ludoteka), merkataritza sustatzeko (elizateetatik eta Leintz Gatzagatik etortzen den jenderako leku erreza da aparkatzeko bere erosketak egiteko) eta merkatu egunak indartzeko.*

*Parkingak dituen segurtasun arazoak konpontzeko ere. Gaur egun bi daude, bata aurtengo neguan ikusi den bezala metalezko harresiaren egoeraren arriskua, nahiz eta, harresia konpondu, berriro eta edozein unean istripuren bat gerta daitekeelako (zonalde irekia da eta haize boladen eta eguraldi gorabehera zabalik dagoelako). Bigarrena, segurtasun arazo bat dago, parkingeko sarrera irteera puntu beltz bat da kotxeentzako, ikuspen gutxikoa eta gurutze-bide batetik gertu.*

*Bi arrazoi nagusi hauengatik, itxita dagoen parking zatia berriz zabaltzea lortu beharko genuke, alokairua errekuperatuz. Honetarako, elkarrizketa bideratuko duen batzorde berezi bat eratu behar dugu: udaletxeko udal taldeko ordezkari bana batekin eta elkarrizketa jabeen berriz irekitzea eskatuz. Alokairu honetarako fondoak probisio bat egin beharko genuke.*

Honetarako gastuaren zati bat liberatuak ordaintzeko partidatik kentzea proposatzen dugu, azaldu gabeko igoera bat izan duela iritzita. Beste zatia zorpetzea handitzeko partida bat irekitzetik ateratzea proposatzen dugu.

**AKORDIO PROPOSAMENA:**

**1. Gastu probisioa.**

<b>0200.100.912.00.01</b>	<b>OINARRIZKO ORDAINKETAK:LIBERATUAK</b>	<b>5,000.00 €</b>
	<b>Zorpetze handitzeko proposamena</b>	<b>5,000.00 €</b>

**GASTU PROPOSAMENA**

	<b>Santa Anako parkinaren alokairua</b>	<b>10,000.00 €</b>
--	---	--------------------

2. Udal batzorde berezi bat eratu, udal taldetako ordezkari banarekin jabearekin elkarrizketa mahai bat irekitzeko eta irtenbide bat bilatzeko.

**5. ZUZENKETA PARTZIALA: Ibilgailuen zarata murrizteko**

Ibilgailuen trafikoak sortzen dituen zaratak gutxitzeko akzioak erabaki eta martxan jarri behar dira. Eskoriatzan sortzen eta jasaten den zarataren inguruan egin berri den ikerketa batean, iparraldeko sarreran autobide, saihesbide eta herriaren erdigunera doazen bideetan ibilgailuen trafikoaren zarata pilatzen dela erakusten da. Arazo bera dago, halaber, Leintz Gatzagara bideko errepedetik gertu dauden baserrietan.

Gai honetan lehentasunezko plan bat diseinatu behar da. Eta, noski, ekintza-plan bat zehaztu Foru Aldunditik edota Eusko Jaurlaritzatik diru laguntzak jasotzeko. Bitartean, Elizateetako partidatik mugituko genuke bide bazterreko baserrien zarata kentzeko, partida orokor bat sortuz.

**AKORDIO PROPOSAMENA:**

**AURREZKI PROPOSAMENA**

**Ez Ohikoa Udalbatza**  
Pleno extraordinario

<b>0100.601.454.00.02</b>	<b>INBERTSIOAK:ELIZATEAK</b>	<b>10,000.00 €</b>
---------------------------	------------------------------	--------------------

GASTU PROPOSAMENA

	<b>Zarata murriztu</b>	<b>10,000.00 €</b>
--	------------------------	--------------------

Zuzenketa horri dagokionez, uste du kreditu bat proposatzen bada ere, hasiera batean ez litzatekeela udal-finantzaketarik behar, biak baitira Gipuzkoako Foru Aldundiari dagozkion gaiak, bera baita errepide horien titularrak, eta bere ustez eskaera Aldundiari zuzendu behar zaiolako.

<b>6. ZUZENKETA PARTZIALA: Elektrizitate jasagarria kontratatzea</b>
--

**AZALPENA:**

*Orain duela bi urte "erosketa berdearen" inguruan egindako proposamenetan energia iturri jasagarrietatik erosteko ahalegin handiagoa egiteko, argiteria publiko barnean partida espezifikoa bat irekitzea horretarako, alegia, elektrizitate jasagarria kontratatzeke. Horrela, krisi Klimatikoaren aurka egindako jarduerak indartuko genituzke.*

**AKORDIO PROPOSAMENA:**

AURREZKI PROPOSAMENA

<b>0200.231.912.00.00</b>	<b>ARGITERIA PUBLIKOA</b>	<b>1,000.00 €</b>
---------------------------	---------------------------	-------------------

GASTU PROPOSAMENA

	<b>Elektrizitate jasagarria kontratatu</b>	<b>1,000.00 €</b>
--	--	-------------------

Zuzenketa horri dagokionez, argitu du planteatzen dutena ez direla gastu jakin bat dakarten ekintzak, baizik eta Udalak kontratatzeke orduan kontuan hartuko dituen irizpideak finkatzea.

Amaitzeko, esan du proposamen malguak direla; beraiek, gehienbat, bat datozela aurrekontu-proposamenarekin, eta eskatzen dutena dela oso interesgarritzat jotzen dituzten gaiak, aurrekontuetan jasota egon arren, gauzatzeko konpromisoa idatziz jasotzea.

**Ez Ohikoa Udalbatza**  
Pleno extraordinario



**Josu Ezkurdia:** Eskerrik asko aurkezpenagatik, eta gure botoa ezagutzera eman aurretik, zuen zuzenketei dagokienez, bi gai utzi nahi ditut agerian. Lehena da gure harridura zuen planteamenduarengatik, eta, bigarrena, gure tristura. Ezustea, bi arrazoiengatik. Lehenengoa da, Nestor jaunak esan duen bezala, negoziazio-prozesu bat ireki zela, eta EH BILDUREkoekin bilera egin aurretik testu bat aurkeztu zitzaigula eta, gure harridurarako, osoko bilkuraren deialdiaren aurreko azken egunean zuzenketa horiek jaso ditugula. Testuak ez dira berdinak, zertxobait antzekoak dira, baina ez dira berdinak, eta ez da normala dokumentu batekin negoziatu nahi izatea eta gero osoko bilkurara beste batekin etortzea. Harritu gaituen bigarrena gauza orain dela gutxi GOIENAN argitaratutako titularra da: *"Honen aurrean udal gobernuari aurrekonturako akordioaren proposamen integrala helarazi genion, eta berriro topatu dugu: EAJK duen elkarrizketarako borondate eza.*

Tira, eta hori gezurra da, eta gezurra da prozesuarekin duela bi hilabete hasi ginelako; eta teknikariekin egon ondoren proposamen bat aurkeztu zen azaroaren 8ko Ogasun batzordean. EH BILDURI azaroaren 27ra arteko epea eman genion gurekin negoziatzeko, eta azaroaren 27an bertan jaso genuen beraien proposamena, eta kontuan hartuta aurrekontuak erabakitze hurrengo batzordea hurrengo asterako deituta zegoela, epe aldetik egun bakarra geratzen zen aurrekontuak negoziatzeko, osteguna. Hala ere, gure lan agendak aldatu, eta bilera deitu genuen, eta bertan izan ziren Nestor eta Eluska. Eta egia da bilera horretan euren dokumentua aurkeztu zigutela. Bi orriko dokumentu horretan filosofia handia eta partida batzuk daude, eta gastua gutxi gorabehera 12.000 eurotan handitzeko planteamendua dago, nola finantzatu planteatu gabe. Hau da, ez dakigu nondik atera nahi dituzten 12.000 euro horiek. Hori da aurkeztu ziguten dokumentua, eta hala eta guztiz ere bertan egiten diren planteamenduetako batzuk txertatzeko prest gaude. Horregatik harridura: lehenengo, bi dokumentu desberdin aurkeztu dituzuelako; eta, bigarren, egunkarietan gezurrak esan dituzuelako. Eta tristura, zergatik? Aukera handia galdu duzuelako herri hau gurekin eraikitze. Baina, hala eta guztiz ere, egiten dituzuen proposamenetako batzuk oso interesgarriak izan daitezke herri honentzat, eta aukera duzue batzordeetan aurkezteko; proposamen horiek eraman, gurekin adostu eta, bidezkoak irudituz gero, onartu egingo dira. Baina, mesedez, ez jarraitu bide horretatik, ez baituzue ezer lortuko. Hilabete izan dugu negoziatzeko, eta zuzenketa batzuekin etorri zarete azken unean. Guretzat ez da onargarria eta horregatik bozkatuko dugu aurka.

**Nestor Arana:** Egia da bi dokumentu aurkeztu ditugula. Lehena zuei aurkeztu dizuegu. Bigarrena aurkezteko arrazoia izan da ez dugula idatzizko zuen erantzunik jaso hartzen dituzuen konpromisoekin. Lehen dokumentua oso globala zen; esan duzun bezala, partida gutxi batzuk jasotzen zituen, eta bere helburua zen hartzen zenituzten konpromisoak idatziz jasotzea. Eta ezin dut ukatu zuek erakutsi duzuen prestasuna, ez goaz horren aurka, eta gainera estimatzen dugu. Baina pauso bat gehiago eman nahi genuen, "idatzitakoaren" urratsa. Bigarrena landuagoa da. Ez dut uste triste sentitu behar zenukeenik; izan ere, guk gure planteamenduak lantzea eta publiko egitea nahi dugu, eta gure boto-emaileei jakinaraztea zer egin dugun. Bi dokumentuak publikoak izango dira, bai zuk aipatu duzuna eta bai hemen aurkeztu duguna, gure helburua gardenak izatea baita. Eperik ez dela izan, ba, bileran esan genuen zabalik geundela kopuruak egokitze. Ez dut uste triste egon beharko zenukeenik guk informazio hau publiko egiten dugulako. Uste dut demokrazia baten funtsa dela horrelakoak lau pareten artean ez geratzea eta gutxi batzuek bakarrik ezagutzea, oso sana da publiko egitea. Uste dut eztabaida sana dela, eta herritarrek eskertuko dutela hori publiko egitea eta

bakoitzak normaltasunez hitz egitea bere ideiak defendatuz. Orduan, ez zaitezte triste sentitu, zerbait konstruktiboa da-eta.

**Josu Ezkurdia:** Gu ez gara triste sentitzen zuen planteamenduengatik, baizik eta ez delako normala negoziatzeko unean dokumentu bat aurkeztea eta osoko bilkura baino hiru egun lehenago, eta denborarik egon gabe, bigarren dokumentu bat aurkeztea. Eta berriro diot, gure desadostasuna zuen jarduteko moduarekin da. Aurrekontu hauekin herri hau, gurekin batera, aurrera eramateko aukera izan duzue; ez dakit datorren urtean, herri hau eta udal hau hobeto ezagutzen duzuenean, gauzak ganora gehiagorekin egingo dituzuen eta gauzak denbora gehiagorekin negoziatzeko aukera izango dugun. Hala ere, eta berriro esango dut, zuen proiektu guztiak ondo oinarrituta ekartzen badituzue batzordeetara, entzun egingo ditugu, publiko egingo ditugu, eta batzorde horretan parte hartzen dutenek egokitzat jotzen badituzte, onartu egingo dira. Kontua ez da nork proposatzen edo aurkezten dituen proiektuak, baizik eta herri honentzat onak diren ala ez.

**Nestor Arana:** Batzordeen gaia aipatu duzu, eta oso garrantzitsua dela uste dut. Kasualitatez, zuen aurrekontu-proposamena ez da batzordeetan aurkeztu; eta esan berri duzu beharrezkoa dela batzordeetan planteatzea; eta horretan ados nago, eta horixe da gure lehenengo dokumentuan eskatzen genuen gaietako bat, batzorde bakoitzean eztabaidatzen hastea. Erabat ados nago zurekin, baina zuen aurrekontuko proposamenak ez dira batzordeetan aurkeztu. Ea datorren urtean batzordeetan aurkezten diren

**Josu Ezkurdia:** Bai, ez dago inolako arazorik. Eta sorpresa bat hartu dut esan duzunarekin; izan ere, azaroaren 8ko batzordean gure proposamena aurkeztu genuen, behar diren argibide guztiekin, eta zu izan zinen 10 minuturen buruan alde egin zenuena gai pertsonalengatik. Batzorde horretan eman behar ziren argibide guztiak, eta zuk 15 minutu eskaini zenion. Orduan, hortik aurrera, zer gehiago espero duzue?

**Nestor Arana:** Orain bai tristetzen nauela horrek, premiagatik utzi behar izandako bilkura bat aurpegiatzea; eta are gehiago, kontuan hartuta gainerako batzordeetan une oro egon naizela; eta, zehazki, batzorde horri dagokionez, bere garaian orduz aldatzeko eskatu nuen. Lehenago egitea eskatu nuen, baina beste batzuek ezin zuten. Ni ahalegin bat egiten ari naiz, eta justu aurpegira botatzen zait une zehatz batean ezin izan dudala denbora guztian egon, uste dut nahiko gaiztoa dela aipatu duzuna. Eta ni ez naiz Ogasun batzordeaz bakarrik ari, "Batzorde guztietan" esaten ari naiz. Ekarpinak hobeto ulertzen dira batzorde bakoitzean. Ogasunekoan ikuspegi orokor bat egongo da, baina guk eskatzen duguna da batzorde guztietan eztabaidatzea, eztabaida argiago bat denok uler dezagun, eta gure aldetik prozesua atzeratu egin da ahalegina egin behar izan dugulako kontu-sail askoren arrazoia ulertzeko. Horregatik eskatzen dugu batzorde guztietan aurkeztea, proposamenen zentzua hobeto ulertzeko.

**Iñaki Kerejeta:** Nik elizateei buruz hitz egingo dut, elizateei buruz hainbat zuzenketa aurkeztu direlako. Zaratari buruz egindako lan bat dago, proposamena puntu zehatzetan zentratu da, baina esan behar dut elizateen partidetan hainbat atal osagarri daudela. Atal horietako batzuk ura eta argia dira, eta beste bat, inbertsioak, % 20 izatera iristen direnak. Baliabideak mugatuak direnez, inbertsio-proiektuak LANDAOLaren, Aldundiaren edo Eusko Jaurlaritzaren ekarpenekin batera finantzatu behar dira. Ekarpin horiek inbertsioaren % 50 eta % 60 artekoak dira, eta gainontzekoa Udalaren aurrekontuarekin finantzatzen da. Horregatik, zerbait egin nahi bada, ez dut bideragarria

ikusten inbertsioetan planteatzen duzuen murrizketa. Bestalde, Gatzbidearena planteatzen duzue, zaratarena... Horren aurrean, argitu behar dut elizate bakoitzak auzo alkate bat duela, horiek hilero biltzen direla eta bilera horietara egoki irizten dituzuen proposamenak eraman daitezkeela, aztertu eta eztabaidatu ondoren lehentasunekoak diren eta egitea merezi duten erabakitzeko.

**Netor Arana:** Erabat ados zurekin. Proposamen horiek partekatzeko astirik gabe ekarri izan dira. Lehen esan dudana: partida bat jarri dugu, baina uste dut gure ahalegina Gipuzkoako Foru Aldundiak arazo horiek konpontzeko behar diren neurriak har ditzan lortzera bideratu behar dugula. Eta hori lortzen bada, ez dugu gasturik izango, baina teknikariek kontrastatu beharko litzateke. Ados nago zuekin proposamen horiek zuekin gehiago landu beharko liratekeela esaten duzuenean.

**Alkateak:** Zuzenketak bozkatu eta diktamena eztabaidatzera pasatu aurretik, Josu bozeramailearen baimenarekin, eta erakunde bateko ordezkari nagusi gisa, esan nahi dut esan duzula ez dela triste egoteko motiboa, baina, niretzat, triste egoteko arrazoia dela argi eta garbi esatea EAJ/PNVk ez duela elkarrizketarako borondaterik, eta hori oso bide okerra dela zuengan konfiantza izateko. Eta hori zuek esan duzue, zuzenean eta publikoki. Horrela esaten baduzue, nekez lortuko duzue gure konfiantza. Eta uste dut hori nire ardura instituzionala dela. Eta uste dut prozesu honetan, justu kontrakoa egin dela. Izan ere, Josuk esan bezala, irailan jada iragarri zen izango genuen egutegia, esan zen lehenik teknikariek egongo ginatekeela eta zer batzordetara eramango zen proposamena. Eta hori guztia ezagutzen zenuten. Hala eta guztiz ere, azaroan izan genuen batzordean izan zenezaketen zalantza guztiak argitzeko aukera eman genizuen, eta hala egin zenuten, ez dakit zuzen ala ez, teknikari batengana jota, eta teknikari horrek horren berri eman zigun. Eta uste dut gure aldetik erantzun argia eta guztiz zabala jaso zenutela, zalantza guztiak argitzeko modukoa. Eta, gainera, esaten baduzue EAJK ez duela elkarrizketarako borondaterik, uste dut ez dela bide egokia gure konfiantza lortzeko. Eta hori, ordezkatzan dudan erakundetik esaten dut; izan ere, norbaitek gezurti deitzen badit edo azalpenik ematen ez dudala esaten badu guztiakin egoten eta ahal diren argibide guztiak ematen saiatzen naizenean, jakina, ez du nire konfiantzarik izango. Alkate gisa hitz egiten dut.

**Josu Ezkurdiak,** EH BILDUK planteatutako zalantzak eta horiei buruz eskatutako argibide guztiakin 6 orriko erantzuna eman zitzaizela aipatu ondoren, berriro adierazi du EAJ/PNVk ahalegin guztiak egin dituela prozesuan zehar negoziatzeko.

**Eluska Irazu:** Bi pertsonaren, bi talderen, bi elkarteren artean elkarrizketa egon dadin "hartu eta eman" bat egon behar da. Ez dut esan nahi akordiorik egon behar den ala ez. Orduan, gu bilera batera bagoaz, eta bilera horretan entzuten bagaituzue -eta eskerrak ematen dizkizuet, hori zuen lana dela uste dudan arren, nahiz eta beti ezetz esateko aukera izan-, baina "zuekin ez dugu ezertarako kontaktzen" entzuten badugu, hori elkarrizketarako borondatea izatea da? Barkatu, baina niri pertsona batek esaten badit: "Oso ondo, kontatu nahi duzun guztia, baina ez dut zurekin ezertarako kontaktzen", orduan, zertara etorri gara hona? Horretarako ez dugu denbora galtzen, utz ditzagun gauzak argi hasiera batetik. Eta hori ere zuek esan duzue. Eskubide osoa duzue esateko, eta guk, benetan, eta Nestor eta biok horrela komentatu genuen bileratik irteetan, eskertzen dugu zintotasun horrekin jokatzea, hori argi eta garbi jokatzea baita. Baina dena konta dezagun. Guretzat hori ez da elkarrizketarako borondatea izatea. Zuentzat badela? Bada, argi dago ikuspuntu ezberdinak ditugula.

**Alkateak:** Ez naiz sartuko iritzi pertsonalei buruz eztabaidatzera, argi daukadana da zer esan duten zuen ahotik komunikabideek eta zer den guk egin duguna. Bakarrik hori azpimarratu nahi nuen.

EH BILDUK aurkeztutako zuzenketa partzialei buruzko eztabaida amaituta, Alkateak bototara jarri ditu zuzenketok.

1. ZUZENKETA. Aurkako 7 botorekin (EAJ/PNVren 6 eta EEEren 1) eta EH BILDUren 3 zinegotziek alde bozkatuta, ez da onartu zuzenketa.

2. ZUZENKETA. Aurkako 7 botorekin (EAJ/PNVren 6 eta EEEren 1) eta EH BILDUren 3 zinegotziek alde bozkatuta, ez da onartu zuzenketa.

3. ZUZENKETA. Aurkako 7 botorekin (EAJ/PNVren 6 eta EEEren 1) eta EH BILDUren 3 zinegotziek alde bozkatuta, ez da onartu zuzenketa.

4. ZUZENKETA. Aurkako 7 botorekin (EAJ/PNVren 6 eta EEEren 1) eta EH BILDUren 3 zinegotziek alde bozkatuta, ez da onartu zuzenketa.

5. ZUZENKETA. Aurkako 7 botorekin (EAJ/PNVren 6 eta EEEren 1) eta EH BILDUren 3 zinegotziek alde bozkatuta, ez da onartu zuzenketa.

6. ZUZENKETA. Aurkako 7 botorekin (EAJ/PNVren 6 eta EEEren 1) eta EH BILDUren 3 zinegotziek alde bozkatuta, ez da onartu zuzenketa.

Aurkeztutako zuzenketa partzialak banan-banan erabakita, Alkateak eztabaidara eta bototara jarri du Pertsonal eta Ogasun batzordeak diktaminatutako 2020ko aurrekontu espedientea. Hitz egiteko txanda emanda, honako hauek hitz egin dute:

**Josu Ezkurdia:** Aurkeztu dugun aurrekontuaren zenbateko esanguratsuenak oso labur azaltzen saiatuko naiz. Datorren urteko aurrekontua 5.847.911 eurokoa izango da, hau da, aurtengoa baino % 4,6 gehiago. Kopuru horretatik 2.871.000 euro Foru Funtzarekin finantzatzen dira, % 48 zergadunek ordaintzen dituzten tasa eta zergekin eta, falta dena, lortzea espero dugun dirulaguntzekin. 363.000 euroko laguntza jasotzea espero dugu hainbat proiektu gauzatu ahal izateko. Oro har, aurreko agintaldiko ildo bera jarraitzen duen aurrekontua da, emaitza ona eman zuelako, eta kasu honetan erantsi behar da hauteskundearen osteko lehena dela, eta kanpainen hainbat konpromiso hartu genituela. Aurrekontu hau da hartutako konpromiso horiek guztiak martxan jartzeko abiapuntua, eta, horregatik, guretzat oso garrantzitsua da aurrera ateratzea. Azpimarratu beharreko beste kontu bat da guk garrantzi handia ematen diogula "herrigintzari", gastu arrunta ez hazteari, edo, gutxienez, langileria eta mantentze gastuak mantentzeari ahal den neurrian, eta hori aurrekontu hauekin lortzen da. Horri esker finantzazio handia lortu genuen "herrigintzarentzat", hau da, herriko elkartei dirulaguntzekin laguntzeko, jarduerak bultzatzeko eta inbertsioak egiteko. Aurrekontu honetan "Herrigintzarako" aurrekontu batean aurreikusitako kopururik handiena aurreikusten da, hau da, 1.200.000 euro inguru. Kopuru horretatik 510.000 euro inbertsioetarako izango dira, 356.000 euro, jarduerak egiteko eta hobekuntza-azterketetarako eta 322.000 euro, diru-laguntzetarako. Eta nolakoak dira aurrekontu hauek?

Aurrerakoiak eta jasangarriak dira, sozialak eta integrazioakoak. Zuek aurkeztutako zuzenketen tituluetan (EH Bilduko zinegotziei zuzentzen zaie) oso gauza politak agertzen badira ere, atzetik oso eduki gutxi dute. Gure proposamenean, aldiz, kopuru handiak daude gauza horiek lortzeko. Adibide bat jartzearren: babes sozialean (gazteak eta erretiratuak), 522.000 euro; berdintasun ekintzetan, 5.300 euro (EH BILDUK planteatzen zuenaren bikoitza); erretiratuaren aisialdirako, 15.000 euro (baratzeetako arazoei irtenbidea ematea barne); eta prekarietateari buruzko azterketa bat egitea ere planteatzen da. Jasangarritasunari dagokionez, udal azpiegituren sareak hobetzea planteatzen da (bakarrik argiteriarako 78.000 euro aurreikusten dira), hondakinen sorrera murrizteko ekintzak ere planteatuko ditugu, konpostatze guneak ere konponduko ditugu (25.000 euro) eta, azkenik, eta hori da gure proiektu izarra, Luis Ezeizan eta frontoian geotermia sistema bat, edo beste sistema jasangarriren bat, jarri nahi dugu. Hori ez da aurten gauzatuko, baina horretarako dauden aukerak eta alternatibak aztertzen hasi nahi dugu, hainbat erakunderekin harremanetan jarritz. Beraz, aurrekontu horiek sozialak dira, jasangarriak dira eta integrazioakoak dira. Beste arlo batzuk ere ez ditugu ahazten; adibidez, soilik kulturara eta euskarara 697.000 euro bideratuko ditugu, liburuak erosteko 10.000 euro aurreikusi ditugu, 8.000 euro liburutegiko jardueretarako eta 44.000 euro kultur jardueretarako oro har, hau da, iaz baino % 22 gehiago. Aurrekontu hauek ere parte-hartzaileak eta herrikoikiak dira. Adibidez, lehen esan dudan bezala, 10.000 euro bideratuko ditugu erretiratuaren baratzeetara. "Gatz bidea" ere konponduko dugu: aurten 18.000 euro inbertitu ditugu eta datorren urtean beste 8.000 euro inbertituko ditugu, beharbada ez da nahikoa bide osoa konpontzeko, baina, poliki-poliki, egiten goaz. Elizateetan 117.000 euro inbertituko ditugu, asko dirudi, baina ez da horrela, dituzten beharrak asko direlako. Elkarteei ere gure laguntza eskaintzen diegu: bakarrik Musika Eskolak 48.000 euro jasoko ditu, iaz baino % 20 gehiago; Kirol Elkarreak 30.000 euro, iaz baino % 27 gehiago; eta, "Errekan Gorak", 10.000 euro, aurten baino % 11 gehiago. Uste dut zenbaki horiek guztiz esanguratsuak direla gure aurrekontu-proiektua nondik nora doan jakiteko. Garapen ekonomikoan 134.000 euro, eta abar eta abar; eta lehen aipatu dut parte-hartzaileak direla, izan ere, aurrekontu hauek taldeen eta bizilagun askoren parte-hartzearekin egin baitira. Gainera, udal langileek 20 ekarpen baino gehiago egin dituzte, guztira 200.000 euro inguru. Horregatik uste dut aurrekontu hauek oso onak direla. Beste adibide bat: euskara bultzatzen dugu, eta horretarako 204.392 euro aurreikusi ditugu, iaz baino % 10 gehiago; horietatik, Udalak antolatutako jardueretarako 46.000 euro bideratuko ditugu, aurten baino % 53 gehiago; Euskaraldiak, berak bakarrik, 9.000 euroko gastua ekarriko du; eta Goienari 32.600 euro emango zaizkio. Eta inbertsioak aipatzen jarrai dezaket. Guztien artean, 518.000 euro inguru, eta hori posible izan da aurten geneukan zorra kitatu dugulako. Inbertsiorik garrantzitsuena frontoia eraberritzea da, eta horretarako 254.000 euro aurreikusten da. Hiru fasetan egingo da, eta batzordeetan jorratuko da gaia. Datorren urtean erabiltzaileekin egongo gara, haien beharrak ezagutzeko eta orain esku artean dugun aurreproiektu teknikoak hobeto definitzeko. Ez dugu ezer egingo aurretik erabiltzaileekin eta zuekin hitz egin gabe. Alde horretatik, lasai egon zaitezke. Elizateena aipatu dut. Irisgarritasunari eta mugikortasunari dagokionez, oinezkoen segurtasuna bermatzeko 50.000 euro gastatuko ditugu Dorletarako bidean oinezkoentzat zubi bat egiteko, irisgarritasun-azterketa bat egingo dugu Intxaurtxuetan eta Arana kalean bidegorri bat egokitu nahi dugu, eta ahal bada, egingo dugu, uste dugulako makro-aparkaleku bat planteatzea baino garrantzitsuagoa dela. Eta adibide gehiago ematen jarrai nezake. Nik uste dut aurrekontu hauek oso ondo daudela, funtzionatuko dutela aurreko agintaldikoen ildoari jarraitzen diotelako eta arlo guztietan hobekuntzak eta planteamendu positiboak jasotzen dituztelako. Hala ere, diru hori guztiori hemen dago, eta datorren urtean egoki irizitako aldaketak egiteko prest gaude, baldin eta ekarpenak egiten baldin badira eta horiek positiboak izan.

**Ez Ohikoa Udalbatza**  
Pleno extraordinario

**Nestor Arana:** Eskertzekoa da, eta guk eskertu egiten dugu aipatu duzun lehen dokumentu horren edukia. Zentzu horretan, "Gatz bidea", kiroldetiko energia berriztagarria... hori guztiori kontuan hartu dugu. Guk egiten duguna da horri guztiari beste jardun zehatz batzuk gehitu. Ez da gutxiago jarri dugula, baizik eta beste proposamen batzuk gehitu dizkiogula horri guztiari. Eta hori eskertzekoa da. Horretaz gain, guk eskatzen genuena -eta ez dakit izango den, Jose Ramonek dioen bezala, mesfidantzagatik, eta horregatik ere abstenitu ginen batzordean- proposamen horiei buruzko idatzizko erantzun bat zen, jarduera konpromiso batzuk eta batzordeetan kontu emateko konpromisoa hartzeko; izan ere, hemen aurkeztu dituzun kontu batzuk guztiz berriak dira guretzat. Guk, abstentziotik baiezkoa pasatzeko, idatziz eskatzen genuen konpromiso hori. Eta hori, eskatu ditugun azalpen guztiak inolako aurpegi txarrik jarri gabe eman zaizkigula kontuan izanda. Eta hori eskertzekoa da. Kontua da aurreikusten dena betetzeko konpromisoa eskatzen dugula, gauza batzuk lehenagotik datozelako eta ez dakigulako gauzatuko diren edo ez. Ados gaude planteatzen denaren % 99arekin, baina konpromisorako "jauzi" hori eskatzen genuen.

Eztabaida amaituta, 2020ko aurrekontuko espediente proposamena bozkatu da.

7 zinegotzik alde bozkatuta (EAJ/PNVko 6 eta EEEko 1), eta EH BILDUKO 3 zinegotziek aurka, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Hasiera batean onartzea 5.847.911,50 €-ko udal aurrekontua.

**Bigarrena.-** 2020ko aurrekontua betearazteko araudia eta 2020ko aurrekontu orokorra osatzen duen gainontzeko dokumentazioa hasiera batean onartzea, apirilaren 15eko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuz (LED) onartutako Testu Bategineko 445. artikuluan ezarritakoaren arabera.

**Hirugarrena.-** Erreklamazioak edo iradokizunak jartzeko hamabost egunez jendaurrean egoteko epean inolako erreklamaziorik ez balego, onarpena behin betikotzat jotzea.

## **5.- 2020rako LANPOSTU ZERRENDA ETA PLANTILLA ORGANIKOA ONARTZEA.**

Administrazio onaren printzipioak eskatzen du erakundea etengabe egokitzea egon daitezkeen aldaketetara, eta horrek azpian dagoen ekonomia eta antolaketa errealitatea benetan isla dezala.

Lanpostuen zerrenda etengabe eguneratzen ari da bere izaera dinamikoaren ondorioz, eta uneoro udal honen antolaketa-beharren benetako adierazpena izateko helburuarekin.

Obra eta zerbitzuen arloak "obra eta zerbitzuen arduradun" lanpostua amortizatzeko eskatzen du, lanpostu hori hutsik baitago titularra erretiratu zenetik, eta Obra eta Zerbitzuetako Ingeniari Tekniko (OPIT-2) beste lanpostu bat sortzeko, obra eta zerbitzuen unitate funtzionalari esleitutako erantzukizunak berrantolatzeko.

Beste alde batetik, informatikari bat kontratatzea planteatzen da, Udal honek Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien (IKT) esparruan egin beharreko jarduerak behar bezala planifikatu eta kudeatu ahal izateko.

Gipuzkoako Gizarte Langintzaren Elkargo Ofizialak idazki bat bidali zuen "gizarte-laguntzaile" lanpostuaren gaztelaniazko izena "Asistente Social" ez dela guztiz zuzena adierazteko, eta hura aldatzeko eta "Trabajador/a Social" deitzeko eskatu zuen.

Aldaketa proposamena langileen ordezkariekin aurrez negoziatu da, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzko apirilaren 12ko 7/2007 Legearen 34. eta 37. artikuluetan xedatutakoa aplikatuz, eta akordio bat lortu da.

Lanpostu zerrenda onartzea eta, ondorioz, baita bertan egindako aldaketak ere, Udalbatzarrari dagokio, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 legearen 22. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta eskumen hori ezin da eskuordetu.

Aldaketa proposamenak udal aurrekontuarekin batera onartutako plantilla organikoa aldatzea dakar, eta beraz, udal aurrekontua onartzeko egin beharreko tramite berak egin behar dira horretarako ere, horrela eskatzen baitu Toki Araubidearen arloan indarrean dauden xedapenen Testu Bategina onartu zuen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzazko Errege Dekretuko 126. artikuluek.

Pertsonal eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako diktamena ikusi da, horrela eskatzen baitute, besteak beste, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Toki Erakundearen Antolamendua, Funtzionamendua eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduko 20., 82. eta 126. artikuluek.

Pertsonal eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, 7 zinegotzik alde bozkatuta (EAJ/PNVko 6 eta EEEko 1) eta bertaratutako beste 3 zinegotziek (EH BILDU) aurka bozkatuta, honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** 2020. urterako eta ondoren esango den bezala aldatzea Udal honetako lanpostuen zerrenda:

1.- Erretiroa hartu zuelako hutsik dagoen eginbehar anitzetako arduradun lanpostua amortizatzea.

2.- Lanpostu hori amortizatuta, "Obra Publikoetako Ingeniari Teknikoa 2" izeneko lanpostua sortzea, eta ondorioz, bi udal OPIT lanpostuen arteko funtzio banaketa berria egitea. Deskribapena, funtzio banaketa eta balorazioa espedientean jasotakoak dira.

3.- Informatikari lanpostua sortzea. Horren deskripzioa, funtzioak eta balorazioa espedientean jasotakoak dira.

4.- Gizarte langilearen gaztelerazko izena aldatzea, eta Asistente Social jarri beharrean Trabajador/a Social jartzea.

**Ez Ohikoa Udalbatza**  
Pleno extraordinario

**Bigarrena.-** Udal honetako euskara zerbitzu teknikoek egindako txostenari eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politika Sailburuordetzak egindako txostenari jarraiki, ondoren zerrendatzen diren lanpostu berriei hizkuntz eskakizuna esleitzea; hori guztiori Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legearen 97.5. artikuluan eta Euskal Autonomia Elkarteke herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzeko 86/1997 Dekretuaren 23. artikuluan ezarritakoa betez.

<u>LANPOSTUA</u>	<u>HIZKUNTZ ESKAKIZUNA</u>	<u>DERRIGORTASUN DATA</u>
OPIT-2	4	2019-12-17
INFORMATIKARIA	3	2019-12-17

**Hirugarrena.-** 2020rako plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda onartzea, aurreko puntuetan adostutako aldaketak kontuan hartuta.

**Laugarrena.-** Erabaki horiek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta 15 egun balioduneko epea ematea interesdunek aztertzeke aukera izan dezaten eta, hala iritziz gero, erreklamazioak jartzeko Udalbatzarrari.

Erabakiak behin betiko onartutzat joko dira aipatutako epean ez bada erreklamaziorik jartzen; eta ondorio horietarako, Alkateak behin betikotzat joko du erabakia eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko aginduko du.

Erreklamaziorik aurkeztuz gero, horiek onartzeko edo baztertzeko eta plantilla organikoaren eta lanpostu zerrendaren aldaketak behin betiko onartzeko proposamena egingo zaio Udalbatzarrari hilabeteko epean.

BOTO AZALPENA:

**Nestor Arana:** Ados gaude proposamen gehienekin, baina zalantza eragiten digu hobeto aztertzeke beharra ondorioztatu izana batzordean, bazirudielako langileekin desadostasunak zeudela. Aurka bozkatzearen arrazoa da akordio batera iristeko beharra ikusten dugula.

**Josu Ezkurdiak** adierazi du Nestor Aranak esan duenaren gainean bi gauza argitu nahi dituela. Alde batetik, obra eta zerbitzuetako organigrama birplanteatzeko beharra ikusi delako egin da brigadari buruzko proposamena. Behar horri aurre egiteko langile baten erretiroa aprobetxatu da, horrela, egin beharreko prozesua ez dadin traumatikoa izan. Jarraian esan du erdi mailako teknikari lanpostu baten beharra ikusi zela plantillan dagoen lanpostu berdinarekin funtzioak eta ardurak banatzeko, eta ondoren jakinarazi du lanpostu bakoitzaren funtzio garrantzitsuenak zeintzuk izango liritekeen. Eta, bestetik, hau gehitu du: "aipatu duzunari buruz, langile bat ez zegoela ados, esan behar da planteamendua zerbitzuko langile guztiei azaldu zitzaizela, entzunaldia eskaini zitzaizela beraien iritzia emateko, eta, inplikaturako teknikariak izan ezik, inork ez zuela ezer esan. Alde horretatik erabat lasai gaude aldaketa horrekin, uste baitugu egokiena dela Eskoriatzan ditugun arazoetako askori erantzuteko. Ez dugu uste langilerik kaltetu dugunik, nahiz eta bakoitzak bere iritzia izan. Hitz egiteko aukera eman eta inork ezer ez esan ondoren, guk gure bidea jarraitu dugu".

**Ez Ohikoa Udalbatza**  
Pleno extraordinario



## **6.- 2020-2023 DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA ONARTZEA.**

Pertsonal eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, EH BILDUKo 3 zinegotziak abstenituta eta bertaratutako gainontzeko udalbatzarkideek (EAJ/PNVko 6 eta EEEko 1) alde bozkatuta, honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Hasiera batean onartzea Eskoriatzako Udalaren 2020-2023 diru laguntzen plan estrategikoa.

**Bigarrena.-** Plan hori jendaurrean jartzea 30 egun baliodunez iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik kontatzen hasita, nahi duenak plana aztertu eta, hala iritziz gero, erreklamazioak jarri edo iradokizunak egin ditzan.

**Hirugarrena.-** Iradokizunik edo erreklamaziorik ez balego, plan hori behin betiko onartutzat joko da bestelako erabakirik hartu beharrik gabe.

## **7.- GIPUZKOAKO GURUTZE GORRIAREKIN SINATUTAKO NAZIOARTEKO BABES ESKATZAILEEN ETA ONURADUNEN HARRERA ETA INTEGRAZIO PROGRAMA GARATZEKO LANKIDETZA HITZARMENA LUZATZEA.**

Udalbatzarrak, 2018ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, besteak beste, ondorengo erabakiak hartu zituen:

**Lehenengoa.-** *Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioak garatutako eta Gurutze Gorriak kudeatutako nazioarteko babes eskatzaileen eta onuradunen harrera eta integrazio programa garatzeko lankidetzaren hitzarmena sinatzea Gurutze Gorriarekin.*

**Bigarrena.-** *Hitzarmenarekin hartutako konpromisoak betetzeko, Gurutze Gorriari bi urtez lagatzea, hileko 250 euroko prezioan, Santa Ana 19, 1. esk. helbideko udal etxebizitza. Lagapena espedientean jasotako hitzarmenean zehaztutako baldintzen pean egiten da.*

**Hirugarrena.-** *Erabaki hau esleipendunari jakinaraztea, eta erabakiaren berri ematea idazkariari, kontuhartzaileari eta udal zerbitzu teknikoei.*

Bi aldeek aipatutako hitzarmena formalizatu zuten 2018ko urtarrilaren 25ean, eta Gipuzkoako Gurutze Gorriaren esku utzi zen Santa Ana kalea 19, 1. esk. helbideko udal-etxebizitzaren erabilera.

Hitzarmenaren hamabigarren baldintzan jasotzen denez, hitzarmenak bi urteko indarraldia izango du, baina urtebetez luzatu ahal izango da. Horretarako aldeek luzatzea eskatu beharko dute indarraldia amaitu baino gutxienez bi hilabete lehenago.

Indarraldiaren bi urteak 2020ko urtarrilaren 24an amaitzen dira, eta Gipuzkoako Gurutze Gorriak bi hilabete lehenago eskatu du aurreikusitako urtebeteko luzapena. Gizarte Zerbitzuetako batzorde informatzaileak eskaeraren aldeko diktamena egin du.

Aurrez esandakoan oinarrituz, eta bertaratutako zinegotzi guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Urtebetez luzatzea nazioarteko babes eskatzaileen eta onuradunen harrera eta integrazio programa garatzeko 2018ko urtarrilaren 25ean Gipuzkoako Gurutze Gorriarekin formalizatutako hitzarmena.

#### **8.- ERAIKIN PUBLIKOAK GARBITZEKO KONTRATAZIO ESPEDIENTEARI HASIERA EMATEA: ESPEDIENTEA ONARTZEA ETA LIZITAZIORAKO DEIALDIA EGITEA.**

Hirigintza, Mugikortasun eta Ingurumen batzorde informatzaileak egindako diktamena ikusita, Udalbatzarrak, aurrez eztabaidatuta, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, honako hau ERABAKI DU:

**LEHENENGOA.-** ESKORIATZAKO UDALAREN TITULARITATEKO HAINBAT UDAL ERAIKIN ETA LOKAL GARBITZEKO ZERBITZUA prozedura ireki bidez eta hainbat esleipen irizpideren arabera kontratatzeke espediente onartzea. Kontratuari kalkulaturako balioa Europako atalasearen berdina edo handiagoa da, 148.087,80 euro urtekoa, balio erantsiaren zergari dagozkion 31.098,44 euro gehitu beharko zaizkionak. Kontratuak urtebeteko iraupena izango du, beste 4 urtez luzatu ahal izango dena, baina, iraupena, guztira, ezingo da 5 urtetik gorakoa izan.

**BIGARRENA.-** Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Testu Bategineko 110.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, kontratua esleitu baino lehen kontratutik eratorri daitezkeen betebeharrei erantzun ahal izateko 2020ko aurrekontu ekitaldian kreditu egokia eta nahikoa kontsignatzeko konpromisoa hartzea, eta baita hurrengo urteetako aurrekontuetan dagozkion kredituak gordetzeko ere.

**HIRUGARRENA.-** Zerbitzu kontratu honen prozedura ireki bidezko kontratazioa arautuko duten baldintza agiriak onartzea.

**LAUGARRENA.-** Kontratu hau prozedura ireki bidez esleitzeko prozedura hastea, eta lizitaziorako dagokion iragarkia Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean (EBAOn) argitaratzeko agintzea, ondoren kontratatzailearen profilean argitaratzeko, nahi duenak proposamenak aurkeztu ditzan 26 eguneko epe barruan (azken eguna larunbata edo jaieguna baldin bada, epea hurrengo egun baliodunera luzatuko da) iragarkia EBAOran bidaltzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

**9.- DIRULAGUNTZA EMATEA HUTSIK DAUDEN LOKALAK BALIOAN JARRIZ MERKATARITZA EDO ZERBITZU ARLOKO ESTABLEZIMENDU BERRIAK IREKITZEKO LAGUNTZAK EMATEKO PROGRAMAREN BARRUAN.**

2019ko martxoaren 1ean hutsik dauden lokalak balioan jarriz merkataritza edo zerbitzu arloko establezimendu berriak irekitzeko diru laguntzen 2019ko ekitaldiko deialdia onartu zen 2017ko martxoaren 28an eta 2018ko otsailaren 27an egindako bilkuretan udalbatzarrak onartutako oinarrien arabera.

ERAI OSTEOPATIA ZENTROko Ioseba Azkune Ayastuy-k, 72743914C NAN zenbakidunak, 2.173 sarrera zenbakia duen eskaera egin zion Eskoriatzako Udalari, hutsik dauden lokalak balioan jarriz merkataritza edo zerbitzu arloko establezimendu berriak irekitzeko dirulaguntza eskatzeko.

Aurkeztutako dokumentazioa aztertuta, arloko teknikariak zuzena zela ikusi zuen.

Aurreko guztia kontuan izanda eta arloko teknikariak egindako dirulaguntza kopuruaren proposamenarekin bat etorritik, Garapen Ekonomiko Jasangarria batzordeak, 2019ko abenduaren 2an izandako bileran, aho batez, erabaki du Udalbatzarrari honako hau proposatzea:

**Bat:** Joseba Azkune Ayastuy jaunari ondorengo dirulaguntza ematea, hurrengo 24 hilabetetan, ERAI OSTEOPATIA ZENTROko alokairua ordaintzeko:

-Lehenengo urtean, 2020ko urtarrilaren 1etik 2020ko abenduaren 31ra arte: 105 €/hileko  
-Bigarren urtean, 2021eko urtarrilaren 1etik 2021eko abenduaren 31ra arte: 70 €/hileko

**Bi:** Gastu hori onartzea eta honela banatzea:

- 1.260 €-ko gastua 2020. urteko aurrekontuko 0500.481.431.00.01 partidaren kontura.
- 840 €-ko gastua 2021. urteko aurrekontuaren kontura.

**Hiru:** Eskatzaileak jabeari alokairua ordaindu diola egiaztatzeko dokumentuak aurkeztu ondoren ordainduko da lehen HIRU hilabeteko dirulaguntza. Ondorengo dirulaguntzak hiruhilero ordainduko dira, hiruhileko bakoitzari dagokion alokairua ordaindu dela egiaztatzeko dokumentuak aurkeztu eta gero, eta zerga betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta Eskoriatzako Udalarekikoak egunean dituela egiaztatu ondoren.

**Lau:** Interesdunari jakinaraztea.

**Eta beste gairik ez dagoenez, amaitutzat eman da bilkura egun honetako 19:00etan. Eta nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.**

### **1.- RATIFICACION SOBRE LA INCLUSION DE ASUNTO DENTRO DEL ORDEN DEL DIA. TOMA DE POSESION DE CARGO POR EL NUEVO AUZO ALKATEA DE APOTZAGA**

Por unanimidad se acuerda ratificar la inclusión del asunto dentro del orden del día.

Por Resolución de Alcaldía de fecha 7 de setiembre de 2019 se nombró representante personal de la Alcaldía (AUZO ALKATE) en la Anteiglesia de Apotzaga a D. Jesus San Vicente Bengoa.

Por escrito de fecha 5 de diciembre de 2019 el designado presentó renuncia a su cargo y por Resolución de Alcaldía de fecha 9 de diciembre de 2019 se designó en su lugar a Jose Ramón Ocaranza Otaduy.

José Ramón Ocaranza Otaduy se encuentra presente en este acto y de forma expresa acepta el cargo de AUZO ALKATE de Apotzaga.

### **2.- COMUNICACIONES DE LA ALCALDIA**

